



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 16a

10. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren eskolatzte-irizpideei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak aurkeztu du (3. or.).
- Jabeldura, gardentasunaren arloko politika orokorrari, arlo horretako antolakuntzari eta Gobernu Irekiaren bilakaera dela-eta arlo guztietan aplikatzen ari den oinarritzko printzipioei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da epaitegietan salatu dezan foru erkidegoan gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro. Iñaki Iriarte López jaunak aurkeztu du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea oinarritzko gizarte zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua berrazter dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ondoz ondoko kontsulten itxarote-zerrendetan dagoen pertsona-kopuruaren eta itxarote-denboraren erregistro bat sor dezan. Begoña Ganuza Bernaola andreak aurkeztu du (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Boko Haram talde terroristak Nigeriako 276 neskato bahitu izana. Eledunen Batzarrak onetsia (8. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, Renfek Tafallako tren geltokian zerbitzu ematen duten langileak kentzeko erabakiari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Gazte Bermeko Plan Nazionala ezartzeko neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailan D ereduko unitateetan izandako altei eta bajei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (11. or.).

- Galdera, Lizarrako Remontival, Berriozarko Mendialdea I, Iruñeko Ermitagaña eta San Juan de la Cadena ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Tuterako Elvira España, Griseras, Anunciata eta Compañía María ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikasleak ikasturtea hasita dagoelarik hasteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketari eta finantzaketari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kostu osoaren finantzaketari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioa finantzatzeko aldera Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmenean jasotako txostena egiteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (16. or.).

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Jabeldura, Nafarroako Gobernuaren eskolatzeko irizpideei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko jabeldura, Nafarroako Gobernuaren eskolatzeko irizpideei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Berriki Eskola Kontseiluan foru agindu bat eztabaidatu da, Nafarroako ikasleak ikastetxe

publikoetan eta itunduetan eskolatzeko baremoak eta irizpideak aldatzen dituen.

Ikasleak eskolatzen dituen ikastetxeak haien bizitzaren alderdi asko erabakitzen ahal ditu, hala eskola-garaian nola bizitzaren gainerakoetan ere bai, eta horregatik dagokie gurasoei hautatzea, askatasunez, non ikasiko duten haien seme-alabek, zer prestakuntza jasoko duten, eta are irakaskuntzak ere.

Horiek horrela, beharrezkotzat jotzen dugu edozein irizpideren aldaketaren gaineko eztabaida zabal bat. Adostasunera iritsi beharko genuke, hezkuntza-erkidegoan eta Parlamentuan, alderdi-edo ideologia-kontuak direla-eta, ahuldu ez ditzagun ikasleen eta haien familien aukerak.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Gobernuak eskolatzeko gainean dituen irizpideei buruzko jabeldura aurkeztu zaio Hezkuntzako kontseilariari.

Iruñean, 2016ko irailaren 22an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Jabeldura, gardentasunaren arloko politika orokorrari, arlo horretako antolakuntzari eta Gobernu Irekiaren bilakaera dela-eta arlo guztietan aplikatzen ari den oinarrizko printzipioei buruzkoa.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko jabeldura, gardentasunaren arloko politika orokorrari, arlo horretako antolakuntzari eta Gobernu Irekiaren bilakaera dela-eta arlo guztietan aplikatzen ari den oinarrizko printzipioei buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

JABELDURAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako foru parlamentari Guzmán Miguel Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako jabeldura hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroa aitzindaria izan zen erakunde publikoetan gardentasuna aplikatzearen arloan, legebiltzar honek 2012ko ekainean Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legea onetsi zuenetik. Garai hartan, testu hori berritzailea, teknologikoki egokitua, eta parte-hartzailea izan zen, azpimarra berezia jarri zuena informaziorako sarbidea errazteari buruzko alderdietan, eta gainontzeko autonomia erkidegoek testu hori oinarri hartu zuten, halako moduan non hobetuz joan baitzen, Espainian eta mundu guztian arlo horretan aurrera egin ahala.

Harrezkero, eta utzikeria politiko nabarmen baten ondorioz Nafarroan legearen aplikazio eskasa egin baita, Gobernu Irekiaren printzipioak narriatuz joan dira, eta horrek isla izan du herritarren parte-hartzean eta lankidetzan, hori ere lausotuz joan baita. Aldi berean, gero eta traba gehiago jarri zaizkio informaziorako sarbideari,

irekitasun eta gardentasunerako oinarrizko zutabea den aldetik.

Gertatu behar zuenaren kontra, Nafarroako Gobernuaren asmoa izan da Gobernu Irekiaren printzipioak bigarren mailan uztea, eta horrek eragina izan du garai batean Foru Komunitateak alor horretan zuen izen onean. Hala, oso esanguratsua da azken urte honetako beherakada nabarmena, iragarri nahi den kontrako norabideko sustapenaren zuzenki proportzionala dena.

Asko dira egoeraren arrazoiak, guztiak dira aplikatu behar dutenen asmoen ingurukoak, baina departamentuen egituraketak, parte-hartzea eta Gobernu Irekia bereizirik, eta datuak hirugarrenei irekitzea urruntzeak, eragiten dute egun nahasmendua izatea Nafarroako Gobernu Irekiaren oinarrien ezaugarri nagusia, nahiz eta gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren erabat aurkako ezaugarriengatik nabarmendu beharko liratekeen.

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek jadanik behin eta berriz salatu du egoera hori, bai eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko Foru Legea aldatzeko testu bat proposatu ere, baina hau ez da guk soilik ateratzen dugun ondorio bat. Nazioarteko Gardentasuna GKEk, 2016ko abenduaren 16an argitaratutako bere azken txostenean –2016ko uztailetik urrira bitartean bildutako datuak jasotzen ditu–, dio Nafarroa dela Espainian gardentasun-indize apalena duen autonomia erkidegoa; hala, rankingeko azken toki desohoragarria betetzen du, azken-aurrekotik oso urrun.

Jabelduraren testua:

Nafarroako Gobernuari jabeldura aurkezten zaio, gardentasunerako politika orokorrari, alor horretan duen antolamenduari eta Gobernu Irekiaren alderdi guztien bilakaeran –informazioa eskuratzea, parte hartzea eta lankidetzaren aplikatzen ari den oinarrizko printzipioei buruzkoa.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 3an

Foru parlamentaria: Guzmán Miguel Garmendia Pérez

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da epaitegietan salatu dezan foru erkidegoan gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro.

IÑAKI IRIARTE LÓPEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita epaitegietan salatu dezan foru erkidegoan gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Iñaki Iriarte López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako mozio hau aurkezten du, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita epaitegietan salatu dezan foru erkidegoan gertatutako izaera politikoko ekintza bandaliko oro.

Trantsizioa hasi zenetik Nafarroako herri askotan eraso bandaliko ugari gertatu dira, izaera politikoko pintadak, hain zuzen. Batzuetan pintada horietan siglak eta leloak agertzen ziren. Besterik gabe, baina beste batzuetan heriotza-mehatxuak gehitzen ziren, isekak edo irainak igortzen zizkien biktimei, edo, zuzenean, indarkeriak eta ekintza terroristen egileak goratzen ziren. Pintada horiek ezabatzea udalei bazegokien ere, askotan ez zuten egiten, edo denbora luzea ematen zuten hura egin arte.

Azken urteotan, zorionez, egintza horien maiztasuna nabarmen jaitsi zen. Baina joan den udaz geroztik izaera bandaliko pintaden igoera kezagarria izan da. Haietako gehienak ultraezkertiarrak eta ultranazionalistak dira, eta beste batzuk eskuin muturrekoak.

Hain zuzen ere, 2016ko irailaren 14an EH Bildu, Geroa Bai eta Podemos-Ahal Dugu taldeek erregistratutako mozio batean izaera faxistako pintada batzuk “delitu larriak” deitzen ziren, eta Nafarroako

Gobernua premiatzen zen “auzitegietan sala ditzan –Fiskaltzak berehala ofizioz jarduten ez badu–, udalekin eta ukitutako gainerako entitateekin lankidetzan, bai eta, kasua bada, horretarako asmoa ager lezaketen elkarte eta partikularrekin batera, Foru Komunitatean gertatu diren eskuin muturreko egintza bandalikoak, izaera politikokoak, haien erantzuleak identifikatuak izan daitezen sustatzeko, eta behar den prozedura judiziala ezar dakien”.

Logika hutsean deitura hori e aipatu neurria hedatu beharko lirakeke izaera politikoko ekintza bandaliko guztietara, bereziki terrorismoaren biktimei duintasuna ukitzen dutenetara.

Beste alde batetik, joan den azaroan Nafarroako Gobernuak iragarri zuen ez zuela luzatuko terrorismoa goratzeko pintadak kentze aldera Gobernuaren Ordezkaritzarekin sinatutako lankidetzaprotokoloa. Hitzarmen hori 2001eko irailean sinatu zen, ETA goratzen zuten pintadak ezabatzerakoan zenbait udalek behin eta berriro erakutsitako utzikeria ikusita. Arduragabekeria hori errepikatzearen aukerari begira, neurriak hartu behar dira, bermatze aldera edozein izaera politikoko ekintza bandalikoaren berehalako konponketa.

Horregatik, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Parlamentu honek Nafarroako Gobernua premiatzen du auzitegietan sala ditzan –Fiskaltzak berehala ofizioz jarduten ez badu–, udalekin eta ukitutako gainerako entitateekin lankidetzan, bai eta, kasua bada, horretarako asmoa ager lezaketen elkarte eta partikularrekin batera, Foru Komunitatean gertatu diren era guztietako egintza bandalikoak, izaera politikokoak, haien erantzuleak identifikatuak izan daitezen sustatzeko, eta behar den prozedura judiziala ezar dakien.

2. Izaera politikoko egintza bandaliko guztiak arbuiatzen ditu, eta burutzen dituzten taldeei egiteari utz diezaioten premiatzen ditu.

3. Parlamentu honek Gobernua premiatzen du Gobernuaren Ordezkaritzarekiko protokoloa berreskuratu eta handitu dezan, izaera politikoko pintada bandaliko guztiak ezabatze aldera, udalekin eta toki entitateekin lankidetzan.

Iruñean, 2016ko abenduaren 19an

Foru parlamentaria: Iñaki Iriarte López

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea oinarrizko gizarte zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua berrazter dezan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea oinarrizko gizarte zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua berrazter dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascuésék, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Oinarrizko gizarte zerbitzuak gizarte zerbitzuen sistema publikoko oinarrizko unitatea izanda, sisteman sartzeko atea eta hartzailengandik gertuen dagoen maila dira. Gainera, funtsezko eginkizunak dituzte arreta komunitarioa antolatzeko.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legearen 29. artikulua arabera, titulartasuna toki entitateei dagokie, baina ezartzen da Nafarroako Foru Komunitateak finantzatzeko duela legeak berak nahitaezkoztat jotzen dituen programen kostuaren % 50, gutxienez ere.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen oinarrizko programetan sartzen diren prestazioak, eta Nafarroako Gobernuak nola finantzatzeko dituen zehazteko irizpideak, maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretuan zehazten dira.

Krisialdi ekonomikoaren ondorioz nabarmen handitu da oinarrizko gizarte zerbitzuetara jotzen dutenen kopurua, eta behar eta profil berriak agertu dira. Horrek oinarrizko gizarte zerbitzuak gainezka egotea ekarri du, baina Nafarroako Gobernuak oraingoz ez dio erantzun errealitate berri horri.

Toki entitateak ari dira gaur beraien gain hartzen ahalegin ekonomikoa, baliabide teknikoak eta programak doitzearren aurkitzen dituzten errealitateei, eta Eskubide Sozialetako Departamentua, berriz, ez da elkarren arteko erantzukizun hori bere gain hartzen ari, ekitateari eta eraginkortasunari dagokienez.

Lehen aipatu dekretuaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta oinarrizko gizarte zerbitzuen titularrak diren toki entitateen arteko hitzarmenak urte anitzekoak izanen dira, hiru urteko iraunaldiarekin.

Alde horretatik, 2016ko abenduan amaitzen direnez 2013-2016 aldirako indarra duten hitzarmenak, eta kontuan hartuta pertsonen errealitateak eta beharizanak aldatu egin direla, hitzarmen berriak sinatzeko esparrua une egokiena da hainbat alderdi berrikusteko, besteak beste populazio ratioak, hala gutxieneko taldeetarako nola Nafarroako Gobernuaren aldetiko finantzaketarako.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

– Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako programen eta finantzaketaren arloan garatzeko Erregelamendua onesten duen maiatzaren 22ko 32/2013 Foru Dekretua berrikus dezan.

– Finantzaketa sistema berrikus dezan, bai eta populazio tarreak ere, gutxieneko taldeak finantzatu eta zehazteko orduan. Oinarrizko gizarte zerbitzuetan alderdi asko eta oso heterogeneoak daude; horietako egoerak, gabeziak, beharrak, indargunek eta ahuleziak oso ezberdinak dira haien artean.

Iruñean, 2016ko abenduaren 21ean

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da ondoz ondoko kontsulten itxarote-zerrendetan dagoen pertsona-kopuruaren eta itxarote-denboraren erregistro bat sor dezan.

BEGOÑA GANUZA BERNAOLA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Begoña Ganuza Bernaola andrearen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita ondoz ondoko kontsulten itxarote-zerrendetan dagoen pertsona-kopuruaren eta itxarote-denboraren erregistro bat sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Begoña Ganuza Bernaola foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamendua ematen dizkion ahalmenez baliatuz, ondoko mozioa aurkezten du:

Gaur egungo osasun zerbitzu publikoak duen arazo nagusietako bat da osasun arreta jasotzeko zain dauden pertsonen kopurua eta arreta hori jaso arte itxaron behar izaten duten denbora; hain zuzen, "itxarote-zerrenda" izenez ezagutzen duguna. Hori dela eta, Nafarroako osasun sistema egunez egun hobetze aldera jarraitu behar dugun bideak baliabideen kudeaketa efizientean eta itxarote-zerrenden kontrolean eta pixkanakako asimilazioan oinarrituta behar du egon.

Lehen kontsultarako itxarote-zerrendak eta ebakuntza egitekoak badute hileroko erregistroa SISNAren eta aginte-koadroaren bidez, zeinek ahalbidetzen baitute zerrenda horien egoera eta bilakaera ezagutzea eta, hala, arretak okerrera egiten duen egoeretan zer hobekuntza-arlo egon daitezkeen detektatzea. Era berean, bi zerrendak kontrol publikoaren menpe daude, Nafarroako Osasun Zerbitzuaren webgunean hileroko ere argitaratu eta zabalitzen baitira.

Tresna horiek Nafarroako osasun zerbitzu publikoaren kudeaketa hobea ahalbidetzen dute,

arazo errealei zuzenean heltzeko bidea ematen baitute.

Osasun Departamentua 605/2003 Errege Dekretua aplikatzen hasi zen 2016ko urtarriletik aurrera, eta horrek lehen kontsultarako itxarote-zerrendaren doikuntza ekarri zuen: ordura arte lehen kontsultan artatzeko zain zeunden eta lehenbiziko kontsultarako itxarote-zerrendan agertzen ziren gaixoak errebisioetarako edota hurrengo kontsultetarako itxarote-zerrendetara aldatu ziren. Harrezkero, espezialitate bereko espezialisten arteko deribazioak ez lirateke lehenengo kontsultatza hartuko, hurrengo kontsulta gisa baizik.

Egun, milaka paziente daude osasun arretaren zain hurrengo kontsultetarako itxarote-zerrenda puztuetan, eta horien izaerari, bilakaerari eta egoerari buruzko datu argitaraturik ez dago, ez barnerabilerarako ez erabilera publikorako ere.

Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du hurrengo kontsultetarako itxarote-zerrenden erregistro bat sortzea, lehenbiziko kontsultetarako eta prozedura kirurgikoetarako dagoen modu berekoa, eta haiei buruzko datuak eta bilakaera publikoak izatea.

Erabaki proposamena:

1) Nafarroako Gobernuak, gehienez ere bi hilabeteko epean, erregistro bat sortuko du, hurrengo kontsultetarako itxarote-zerrendan zain dauden pertsonen eta itxarote-denboraren datuekin, lehenbiziko kontsultetarako itxarote-zerrendarekin eta prozedura kirurgikoetarakoarekin egiten den modu berean. Erregistro hori hileroko eguneratuko da, eta osasun zentroen eta espezialitate klinikoaren arabera bereiziko da. Aipatu erregistroa SISNAren eta aginte-koadroan jasoko da, Parlamentuaren eta Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barne erabilera, eta Nafarroako Osasun Zerbitzuaren webgunean argitaratuko da, herritarrek kontsultatu ahal izateko.

2) Nafarroako Gobernuak, gehienez hiru hilabeteko epean, lege proiektu bat aurkeztuko dio Parlamentuari. Horren bidez, hurrengo kontsultak itxaronaldien bermeei buruzko legean jasoko dira eta haren babesean egonen dira, lehenbiziko kontsultetarako itxarote-zerrendarekin edo prozedura kirurgikoetarakoarekin egiten den modu berean.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Begoña Ganuza Bernaola

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baitu Boko Haram talde terroristak Nigeriako 276 neskato bahitu izana.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten du Boko Haram talde terroristak Nigeriako 276 neskato bahitu izana, bai eta terroristek eginiko pertsonen edo pertsona-taldeen bahiketa oro.

2. Nafarroako Parlamentuak hedabideei eta Nafarroako gizarte zibilari eskatzen die gehiago

inplika daitezen Nigeriako neskatoen askapena eskatzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nigeriari eta munduko herrialde guztiei eskatzen die gehiago inplika daitezen terrorismoaren aurkako borrokan”

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Renfek Tafallako tren geltokian zerbitzu ematen duten langileak kentzeko erabakiari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako galdera, Renfek Tafallako tren geltokian zerbitzu ematen duten langileak kentzeko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldearen ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Erregelamendua 189. artikuluan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun diezaioten:

“Zona Media por el Tren/Erdia Aldea Trenaren Alde” Elkarteak jakinarazi du Renfek asmoa duela Tafallako tren geltokian zerbitzu ematen duten langileak kentzeko 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera. Hala, erabaki horren ondorio nagusia –baina ez bakarrik– bidaia-txartelak saltzeko leihatila ixtea izanen da.

Gure ustez, erabaki larria da hau; izan ere, Renfek ez du itxuraz begirunez jokatu eta ez da harremanetan jarri kaltetutako udalekin alde aurretik informatzeko. Udal horiek Nafarroako erdialdea deituriko lurraldekoak baino are gehiago dira, eta udalerrri horietatik datoz tren geltoki

horren erabiltzaile diren 44.000 biztanleak (2015eko datuen arabera).

Nafarroako erdialdeko herrietako biztanleek 157 urte daramatzate trena erabiltzen; horientzat funtsezkoa da ibilbide luzeko Alvia trenetarako sarbide zuzena eta bermeduna izatea, eta aukera hori badute gaur egun Tafallako geltokian.

Jende askoren iritzian, hau geltokia ixteko lehenbiziko urratsa besterik ez da, hala gertatu baita, tamalez, Nafarroan, eta, Nafarroako Abiadura Handiko Trenaren proiektua gauzatzen aurrera egiteko asmoarekin jarraituz gero, trenbide hori erabiltzen duen ibilbide luzeko linea kentzeko atarian geundeke. Hori gertatuz gero, Tafallan trena hartzen duten milaka pertsona horiek, onenean ere, Iruñera edo Tuterara joan beharko lukete.

Horrenbestez, honako galdera hauek egiten dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

Gobernuak ezagutzen al zuen Renferen erabakia, Tafallako tren geltokian zerbitzu ematen duten langileak 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera kentzekoa?

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Sustapen Ministerioaren eta Renfe eta Adif enpresen aurrean zuzemenik egiteko, bertan behera utz ditzaten planteaturiko neurri kaltegarriak eta arreta pertsonalizatuko zerbitzua ematen jarrai dezaten Tafallako tren geltokian, eta, halaber, bidaia-txartelak saltzeko leihatilak irekita jarrai dezan?

Nafarroako Gobernuak uste du Tafallako tren geltokiak eta gaur egun ematen dituen zerbitzuak desagertzeko zorian leudekeela Nafarroako Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren arteko Hitzarmenean aurreikusitako Abiadura Handiko Trenaren proiektua gauzatuz gero?

Iruñean, 2016ko abenduaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Gazte Bermeko Plan Nazionala ezartzeko neurriei buruzkoa.

AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Gazte Bermeko Plan Nazionala ezartzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion.

Iragan abenduaren 23an, Espainiako Gobernuaren Ministro kontseiluak onetsi zuen Europako Gizarte Funtsak finantzatzen duen Gazte Bermeko Plan Nazionala sustatzeko premiazko neurriei buruzko Errege Lege-dekretua.

Iragan abenduaren 19an Enplegurako eta Lan Gaietarako Konferentzia Sektorialean autonomia erkidegoekin lortutako akordioaren eta CCOO, UGT, CEOE eta CEPYMEekin lortutako adostasunaren ondorio da Errege Lege-dekretu hau.

Erreformaten berritasuna da izen emateko baldintzak gutxitu egin direla, eta horrek orain arte izen emandako pertsonen kopurua –Nafarroan oso gutxi dira izen emandakoak– modu esponentzian handitzea ekarriko du. Halaber, eragile sozialen parte-hartzea indartuko da.

Horrek behartzen du Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzua jarduketari berriak abian jartzera, lan bitartekaritza laguntzeko, enplegarritasuna hobetzeko, kontratazioa babesteko eta ekintzaitza sustatzeko.

– Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Gazte Bermeko Plan Nazionalan jasotako neurriak ezartzeko?

– Zer helburu aurreikusten ditu Nafarroako Gobernuak alor honetan, pertsonen eta ekintzen dagokienez?

– Zer tresna ezarriko ditu gizarte eragileek alor horretan parte har dezaten?

Iruñean, 2016ko azaroaren 25ean

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailan D ereduko unitateetan izandako altei eta bajei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailan D ereduko unitateetan izandako altei eta bajei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailan D ereduko unitateetan altarik edo bajarik izan al da?

Zehaztu ikastetxea eta arrazoa.

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak 2017-2018 ikasturterako zenbat lerro ezarriko ditu Caparrosoko, Lodosako eta Tafallako eskola publikoetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean?

Zehaztu hizkuntza eredia.

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Lizarrako Remontival, Berriozarko Mendialdea I, Iruñeko Ermitagaña eta San Juan de la Cadena ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Remontival, Berriozarko Mendialdea I, Iruñeko Ermitagaña eta San Juan de la Cadena ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntza Departamentuak 2017-2018 ikasturterako zenbat lerro ezarriko ditu Lizarrako Remontival, Berriozarko Mendialdea I eta Iruñeko Ermitagaña eta San Juan de la Cadena ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Hezkuntza Departamentuak 2017-2018 ikasturterako zenbat lerro ezarriko ditu Tuterako Huertas Mayores ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean?

Ikastetxe hori handitzeko obrarik egingen al du? Zein? Zergatik? Zein epetan?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak 2017-2018 ikasturterako zenbat lerro ezarriko ditu Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inskripziorako epean?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Elvira España, Griseras, Anunciata eta Compañía María ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inkripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Elvira España, Griseras, Anunciata eta Compañía María ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inkripziorako epean 2017-2018 ikasturterako aurreikusitako lerroei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak 2017-2018 ikasturterako zenbat lerro ezarriko ditu Tuterako Elvira España, Griseras, Anunciata eta Compañía de María ikastetxeetan Haur Hezkuntzako lehenengo mailarako aurre-inkripziorako epean?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikasleak ikasturtea hasita dagoelarik hasteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, ikastetxe publikoetan eta itunduetan ikasleak ikasturtea hasita dagoelarik hasteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Hezkuntza Departamentuak zer aurreikuspen darabil ikastetxe publikoetan ikasleak ikasturtea hasita dagoelarik hastearen ondorioz ikasgelakopurua handitzeari dagokionez?

Urtarrilaren 10eko datuak aintzat hartuta, zenbat ikasle hasi dira ikastetxe publikoetan ikasturtea hasita dagoelarik?

Zehaztu ikastetxea, herria, hizkuntza eredua eta zer ikasgelatan hasi diren, ikasle horretako ikasle kopurua. Azken kasu horretan, zehaztu ikasgela horretan zenbat ikasle diren atzerritik etorriak.

Urtarrilaren 10eko datuak aintzat hartuta, gutzira zenbat ikasle hasi dira ikasturtea hasita dago-

elarik ikastetxe publikoetan eta itunduetan? Zehaztu, halaber, hizkuntza ereduen araberrako datuak.

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketari eta finantzaketari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kudeaketari eta finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Hezkuntza Departamentuak zer irizpide darabil Tuterako Fernando Remacha kontserbatorioaren kudeaketari eta finantzaketari dagokienez?

Hezkuntza Departamentuak noiz helaraziko dio Tuterako Udalari Tuterako Fernando Remacha kontserbatorioaren kudeaketari eta finantzaketari buruzko proposamena?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kostu osoaren finantzaketari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioaren kostu osoaren finantzaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduen 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Hezkuntza Departamentuak Tuterako Fernando Remacha kontserbatorioaren kostuaren ehuneko ehun finantzatuko al du?

Departamentuaren ustez, 2017rako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko Foru Legean ezarritako kontu-saila aski al da kontserbatorio horren kostuaren ehuneko ehun finantzatzeko?

Ezezkoan, nola beteko du kostuaren ehuneko ehuna?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioa finantzatze aldera Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmenean jasotako txostena egiteari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 9an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioa finantzatze aldera Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmenean jasotako txostena egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Hezkuntza Departamentuak idatziz erantzun ditzan:

Hezkuntza Departamentuak egin al du Tuterako Fernando Remacha Musika Kontserbatorioa

finantzatze aldera Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren artean sinatutako hitzarmenean jasotako txostena?

Txostenik egin ez baldin bada, Departamentuak zer dela-eta ez ditu bete hitzarmenean jasotako epeak?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 4an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

